

# Kutxabankek milioitik gora bezerori komisioak kendu dizkie

- **Kontua eta txartela mantentzea doan izango da bezero gazte guztientzat, pentsioa helbideratuta duten adinekoentzat eta 64 urtetik beherakoentzat, nomina helbideratuta eta txarteekin 5 erosketa egiten badituzte**

**2024ko urtarrilaren 2an.** Datorren urtarrilaren **15etik aurrera**, Kutxabankek milioitik gora bezerok, norbanako bezero guztien % **80k**, kontuak edo Visa Dual txartelak erabat doan mantendu ahal izango dituzte, eta **online transferentziak edo txeke nazionalak sarrerak ere kosturik gabe egin** ahal izango dituzte.

Eredu berri honek bezeroetan jartzen du lehentasuna, ageriko kontuen katalogoa sinplifikatzen du eta **baldintzen doakotasuna lotura maila txiki baten arabera ezartzen du.**

Ondorioz, komisorik gabeko baldintzak errealitate bat izango dira **30 urtetik beherako** bezero guztientzat, inolako baldintzarik bete beharrik gabe. Horrela, **kontuak eta txartelak inolako kosturik gabe** izango dituzte, bai eta 'Korner' zordunketa eta kreditu txartel sorta osoa ere.

Hogeita hamar urtetik gorako bezeroentzat, nahikoa izango da **nominak helbideratuta izatea 34 urte bete arte.**

35 eta 64 urte bitarteko bezeroek doako baldintza minimo hauek eskuratuko dituzte baldin eta **nomina helbideratuta** badute eta **hiruhileko bakoitzean 5 erosketa** egiten badituzte erakundeke txarteekin.

Azkenik, **65 urtetik gorako** pertsonak ez dute komisorik ordainduko betiere **pentsioa zuzenean helbideratzen badute.**

## Kutxabanki buruz

Kutxabank Euskadiko eta Kordobako finantza erakunde nagusia da. 700 bulego inguru ditu, jatorriko lurraldeetan kapilaritate handiena duen bulegoen sarea du, eta Andaluzian, Madrilan eta Katalunian presentzia nabarmena du. 5.000 profesionaletik gorako lantaldearekin, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sisteman kaudimen onena duen bankua da, eta Europako arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.